




Espainiako gripea 1918an agertu zen Ameriketako Estatu Batuetan eta gazte eta heldu osasungarri askori eragin zien, baita animaliei ere. Gripea eta Lehen Mundu Gerra parean gertatu ziren. Gerra ez zen epidemiaren eragilea izan, baina parte hartu zuten tropen mugimendu masiboek hura hedatzea erraztu zuten. Hildakoen kopurua 50 eta 100 milioi artekoa izan zen mundu osoan zehar. Infektatuen %10tik %20ra bitartean hil ziren, eta garai hartako munduko populazioaren herentsua infektatu zen. Alboko irudiek badute antzik egun ikusten ari garenekin.

BNATIONAL ARCHIVES. EEUU





Gipuzkoako txoko batean, 1918an, hileta-segizioa. Espainiako gripeak Euskal Herria ere gogor astindu zuen. Ricardo MARTIN. FOTOCAR FUNTSA| KUTXATEKA



Donostiako San Antonio Abad erietxearen atarian, hildako haur baten hilkutxa zuria eramaten. FOTOCAR FUNTSA | KUTXATEKA

IKUSMIRA

DUELA EHUN URTEKOAK ETA GAURKOAK

Espainiako gripeak gogor astindu zuen mundua 1918tik 1920ra bitartean. Munduko biztanleria-
ren herena kutsatu zuen eta 50-100 milioi per-
tsona akabatu osasuntsuenekin bereziki bortitza
izan zen birusak. Orduko mundua, duela ehun ur-
teko hura, gaurkoaren oso desberdina zen. Baina
orain bezala orduan, birus ñimiño batek dardarka
jarri zuen mundua bere luze-zabalean eta mun-
dutarrek berdindu. Beldurraren aurrean denak
baikara igualtsuak. Galeraren aurrean denok bai-
kara zaurgarriak eta hauskorak. Gauzak asko al-
datu dira akaso, edo ez; duela ehun urteko ar-
gazkietan igartzen diren begiradek gaurkoak
diruditelako. Amagoia Mujika Telleria